

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA. Hotelak izan ezik. 2022ko ekaina

Euskal AEko landetxeetan erregistratutako sarrerak eta ostatu-gauak % 55,2 eta % 59,9 igo dira, hurrenez hurren, 2022ko ekainean

Apartamentu turistikoetan, sarreraren eta ostatu-gauen gehikuntzak bikoiztu egin dira aurreko urtekoen aldean

Euskal AEko **landetxetako** sarrerak eta ostatu-gauak, 2022ko ekainean, 16.127 eta 38.285 izan dira, hurrenez hurren. Zifra horiek % 55,2ko eta % 59,9ko urte arteko hazkundera dakarte, hurrenez hurren, Eustatek landutako datuen arabera.

Euskal AEko landa-ostatuuetako sarrerak, ostatu-gauak, batez besteko egonaldia eta okupazio-mailak. Ekaina 2022

	Sarrerak		Gaualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
							plazzen arabera		gelaka	
	2022/06	m/m-12 (%)	2022/06	m/m-12 (%)	2022/06	2021/06	2022/06	p.p. *	2022/06	p.p. *
EUSKAL AE	16.127	55,2	38.285	59,9	2,37	2,30	27,8	8,9	32,7	10,1
Estatukoak	12.724	31,6	29.079	29,7	2,29	2,32	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.403	370,0	9.206	505,7	2,71	2,10	-	-	-	-
Araba/Álava	2.802	56,9	5.829	47,0	2,08	2,22	17,9	4,7	21,2	5,2
Estatukoak	2.543	52,0	5.064	34,6	1,99	2,25	-	-	-	-
Atzeritarrak	259	129,2	765	278,7	2,95	1,79	-	-	-	-
Bizkaia	5.333	105,2	10.749	79,4	2,02	2,31	26,8	10,3	31,5	11,2
Estatukoak	4.263	73,3	8.850	55,5	2,08	2,31	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.070	669,8	1.899	530,9	1,77	2,17	-	-	-	-
Gipuzkoa	7.992	33,0	21.707	55,2	2,72	2,33	33,5	10,1	39,3	11,9
Estatukoak	5.918	6,9	15.165	16,9	2,56	2,34	-	-	-	-
Atzeritarrak	2.074	339,4	6.542	543,3	3,15	2,15	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilabete berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Uztailaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Euskal AEko landetxeetan 2022ko ekainean erregistratutako sarreraren % 78,9k eta ostatu-gauen % 76,0k estatuko jatorria izan dute. Hala ere, aurreko hilabeteetan bezala, atzeritar jatorriko pertsonen sarrerak eta ostatu-gauak izan duten hazkundera bereziki esanguratsua izan da, aurreko urteko ekainean baino 2.679 sarrera eta 7.686 ostatu-gau gehiago erregistratu baitira.

2022ko ekainean, sarrerak eta ostatu-gauak % 56,9 eta % 47,0 gehitu dira, hurrenez hurren, Araban. Bizkaian sarrerak % 105,2 gehitu dira eta ostatu-gauak % 79,4. Gipuzkoan, azkenik, 2021eko ekainaren aldean % 33,0 gehitu dira sarrerak eta % 55,2 ostatu-gauak.

Mota horretako establezimenduetako batez besteko egonaldia 2,37 egunekoa izan da 2022ko ekainean, 2021eko hil berean izandako 2,30 eguneko batez besteko egonaldia baino zertxobait luzeagoa.

Plazen eta gelen okupazio-mailek urte batetik bestera ehuneko 8,9 eta 10,1 puntu egin dute gora, hurrenez hurren; plazen arabera neurtuta % 27,8 igo dira eta gelen arabera neurtuta % 32,7.

Apartamentu turistikoei dagokienez, **2022ko ekainean**, sarrerak eta ostatu-gauak 14.498 eta 49.394ra iritsi dira, hurrenez hurren. Aurreko urteko ekainaren aldean, sarreren urte arteko hazkundea % 139,2koa izan da eta ostatu-gauena % 106,6koa.

Sarrerak, gualdiak, batez besteko egonaldia eta okupazio graduak Euskal AEko apartamentu turistikoetan. Ekaina 2022

	Sarrerak		Gualdiak		Batez-besteko egonaldia		Betetze-mailak (%)			
	2022/06	m/m-12 (%)	2022/06	m/m-12 (%)	2022/06	2021/06	plazen arabera		apartamendua	
							2022/06	p.p. *	2022/06	p.p. *
EUSKAL AE	14.498	139,2	49.394	106,6	3,41	3,94	38,5	15,4	65,5	22,3
Estatukoak	8.954	69,9	29.847	54,8	3,33	3,66	-	-	-	-
Atzeritarrak	5.544	600,6	19.547	321,8	3,53	5,86	-	-	-	-
Araba/Álava	1.288	83,6	7.962	38,9	6,18	8,17	24,2	3,4	72,0	20,2
Estatukoak	1.141	69,8	6.473	32,0	5,67	7,30	-	-	-	-
Atzeritarrak	146	398,1	1.489	79,3	10,17	28,25	-	-	-	-
Bizkaia	9.092	210,7	21.212	205,2	2,33	2,37	39,6	19,6	55,3	18,1
Estatukoak	5.434	111,6	11.354	100,5	2,09	2,21	-	-	-	-
Atzeritarrak	3.658	921,9	9.858	666,6	2,69	3,59	-	-	-	-
Gipuzkoa	4.118	69,2	20.219	80,1	4,91	4,61	48,5	21,1	71,9	29,1
Estatukoak	2.379	17,1	12.019	38,0	5,05	4,29	-	-	-	-
Atzeritarrak	1.740	330,6	8.200	225,7	4,71	6,23	-	-	-	-

p.p.*= aurreko urteko hilairetako berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

M/m12 Behatutako azken hilabetearen izandako urte arteko aldakuntza-tasa (m), aurreko urteko hilairetako berarekin alderatuta (m-12)

Data 2022ko Uztailaren 21a

Iturria: Eustat. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta

Atzerriko bisitarien kopurua, 2022ko ekainean, Euskal AEko apartamentu turistikoetako sarrera guztien % 38,2 eta ostatu-gauen % 39,6 izan da, urte artean atzeritar jatorriko 4.753 sarrera eta 14.913 ostatu-gau gehiago izan ondoren.

Mota honetako establezimenduetako batez besteko egonaldia 3,41 egunekoa izan da 2022ko ekainean, 2021eko ekainean izandakoa (3,94 egun) baino laburragoa.

Lurralde historikoei dagokienez, 2022ko ekainean, batez besteko egonaldia 6 egunetik gorakoa izan da Araban, 4,91 egunekoa Gipuzkoan, eta 2,33 egunekoa Bizkaian.

Plazen arabera okupazio-maila, Euskal Autonomia Erkidegoan, % 38,5era iritsi da, hau da, ehuneko 15,4 puntu igo da 2021eko ekainarekin alderatuta. Apartamentuen arabera neurtuta, okupazio-maila, urte arteko ehuneko 22,3 puntuko igoeraren ondoren, % 65,5ean kokatu da.

Informazio-oharrak

Landetxeen ETHren erantzun-tasa % **92,3**koa izan da eta apartamentu turistikoena % **85,6**koa 2022ko ekainean.

Eustatek eskerrak ematen dizkie inkesta honetan parte hartu duten establezimendu guztiei.

Argibide gehiago nahi izanez gero:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián kalea 1, 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa-zerbitzua: Tel.: 945 01 75 62